



## 29. BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

2020ko apirilaren 19a, igandea

**Bost asteko konfinamendua**, pandemia bati aurre egiteko erabaki politiko zorrotzak hartzea eskatu, **eta gizarte honek dituen arazo larri asko agerian utzi dituena**. Lehen arazo batek guztien adostasuna jaso du: murrizketa bortitzek eragindako osasun-sistemaren gabeziak anitz dira; azken finean, murrizketa horiek hilgarriak izan dira, eta osasun-kolektiboari inplikazio heroikoa eskatu diote. Horrekin batera, agerian geratu da zein garrantzitsuak diren, gure bizimoduaren oinarriko sektoreei eusteko, atzean utzitako zenbait kolektibo, lan-baldintza eta baldintza ekonomiko eskaseta onik, neurri handi batean, etorkinen mende daudenak.

**Hiritarron Harrera Sareak etorkinen sektore ahulenarekin lan egiten du**. Laguntza-sarerik ez duten eta politika publikoen ertzetan dauden pertsonekin. Aurreiritziz osaturiko begirada estigmatizatzailea jasaten dutenekin. Eliteetako kide ez garen pertsona autoktonok ditugun baino oztopo gehiago jartzen zaizkienekin. Pertsona horiei helarazi nahi diegu diskriminazio hori onartzen ez dutenen eta nolabait inplikatu nahi dutenen elkartasuna. **Elkartasuna, bere beharrei babes zehatza emanaz, iritzi publikoan bere egoera ikusaraziko duena eta erakundeei bere eskubideak errespetatzeko behar diren politikak eskatuko dizkiena**.

**Ez gara normaltasunera itzuliko, normaltasuna zen arazoa**. Erakundeei gehienetan entzuten zaien diskurtsoa da ahalegin eta bitarteko asko beharko direla duela urte batzuk geunden lekura itzultzeko. Hau da, ez dute diskurtsoa aldatu. Ez dute abipuntu gisa hartu nahi honaino ekarri gaituzten politika asko errotik aldatu behar direla, bai ekonomiaren, bai gizarte-politiken, bai balioen esparruan, eta baita herritarren eta erakundeen eginkizunarenean ere. Hots, geunden tokian gaudela.

**Arazoak onartzea** lehen urratsa da beti. Lehen lekuan pertsonak jarri behar direla eta inor ez dela atzean utzi behar entzuten ari gara asetu arte. Hiritarron Harrera Sareak lantzen duen eremuan hori gauzatzen da, besteak beste, **egunero sabairik eta elikagairik ez duten ehunka pertsona kalean ez uzten**. Konfinamendu-neurriek behartu egin dituzte erakundeak pertsona horiek baliabide gutxi-asko duinetan hartzera, kaletik ateratzeko. Beste askok eraikin abandonatuetan jarraitzen dute. Baina **ez diogu ordezkari publiko bati ere entzun, konfinamenduaren ondoren, haien beharrei erantzuteko betebeharra beren gain hartzen jarraituko dutenik**. Hau da, sabaia eta janaria ematea, gizartean aurrera egin ahal izan dezaten beharrezkoa den esku-hartzearen lehen urrats gisa. Orain konpromiso hori ez badago, noiz? Horregatik da garrantzitsua sarea eta haren lana sendotzen jarraitzea, bai eta erakundeei exijitzeari eustea ere.

**Ez itzazue kalera bota Manifestuak** eskakizun horri indarra eman nahi dio. Instituzioei erakutsi nahi diegu gizarte honen zati handi batek ez duela onartzen pertsona horien eskubide oinarrikoena, hau da, estalpea eta elikagaia eskuratzeko duten eskubidea, ahaztea. Gaur egun, 25 erakunde eta 576 pertsona batu dira. Askoz gehiagora irits gaitezke. Manifestua zabaltzeko eskatzen dizugu, egoera horretaz pertsona gehiago jabe daitezen eta, horrela, laguntza gehiago lor dezagun. Helbidea: <https://cutt.ly/OtKaVgi>

### BALIABIDE INSTITUZIONALAK

**Informazio gehiago, publizitate gutxiago**. Egun batean bai, eta hurrengoan ere bai, agerian jarritako beharrei aurre egiteko neurri batzuk entzuten ditugu. Baina bat datoz behar denarekin? Batzuetan, badirudi purraka bezala botatzen dituztela neurriok: Eusko Jaurlaritzak duela egun batzuk 3 milioi jarri zituen autonomoentzako laguntza gisa; handik bi egunera, 30 milioira igo behar izan zituen. Eta informazioa? Gaur egun ez dakigu zertan gauzatzen diren *Bazterkeria- eta pobrezia-egoerei aurre*



## 29. BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

*egiteko Funtsaren* 10 milioiak. Haren enuntziatuan gaur egun gabezia horiek dituzten pertsona asko sartuko lirateke. Baina Harrera Sareak berak ere ez badu lortzen haiei buruzko informaziorik, nola izango dute informazio hori behar dutenek? Funts horri publizitate handia egin zaio, baina, neurri zehatzei?

**Estali gabeko elikadura-beharrak areagotu egiten dira.** Ez dugu zalantzan jartzen instituzioek duela hilabete batzuk baino behar gehiago betetzen ari direnik. Egia da, bai horixe. Baina, era berean, egia da jende asko kanpoan uzten dutela. **Sareak aste honetan 107 pertsonari eta 15 familiari, denen 167 pertsonari gutxi gorabehera, eman dizkie elikagaiak.** Eta harremanetan gaude beste **persona askori arreta ematen dieten beste erakunde batzuekin.**

Era berean, enplegua galdu denetik aurrera ordain ezinezkoak bihurtu diren **alokairuei aurre egiteko laguntza ekonomikoen beharrak** gora egin du. **Bi egoera horiek** aurrez aipatutako Funtsean jasotzen dira, baina oraindik ez dira betetzen, eta ez dago jakiterik zein ate jo behar den horretarako. Hasiera batean ahalbidetu beharko luketenez, gizarte-zerbitzuek, ez dakite zer egin. Udalak larrialdiko harrera-baliabideek eragiten dioten gastu-igoera aipatu du, baina ez ditu aipatzen Eusko Jaurlaritzak prestatutako baliabideen bidezko diru-sarrerak. Adibidez, GLLetarako jasotzen dituenak, 1.512.677 izatetik 2.564.961 izatera igaro baitira.

#### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

**Ekarpen ekonomiko solidarioari** dagokionez, 154 pertsonak emandako diru-sarrerak **10.889 €** izan dira dagoeneko. **Gastuak 9.137,44 eurokoak dira**, elikagaiak, dutxak, mugikorrek, mikrouhinak, arropa, farmazia, tabakoa, gasolina, butanoa, gelen fidantza aurreratzea eta beste gastu batzuk barne. **Saldoa 1.751,56 €**-koa da.

Diru-sarreretan, **ezkerreko alderdi politiko batek emandako 1.000 euroko ekarpena** dugu, aste hauetan erabiltzen ez dituzten **Legebiltzarreko dieten** parte gisa. Ideia berria, eta iradokizun gisa zabaltzen duguna, hauxe: pertsona batek Ogasunaren aitopenean itzuli dioten 333 € eman ditu. Jarraitu beharreko pista/proposamena? Haurraldek maskara sorta bat ere eman digu, premiei erantzuten diegun lankidetzaz-esparruan.

**Gandariasen eta Pandoraren** eguneroko janari ekarpenak segitzen du, eta orobat boluntarioek janari banaketan duten inplikazio gero eta handiagoak.

#### Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

**Kontaktua:** [redacogidaciudadana@gmail.com](mailto:redacogidaciudadana@gmail.com) 675 71 53 15

**Facebook:** @HiritarronHarreraSarea

**Instagram:** @harrerasarea

**Dohaintzak:** KK ES44 2095 5013 70 9119577666

**Gainerako buletinak kontsultatu nahi badituzu, hemen egin dezakezu:**

<http://www.mugak.eu/news/covid-19-boletines-diarios-de-la-red-ciudadana-de-acogida>

**ZABALDU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**